**Iametza interaktiboa**
kaixo@iametza.eus
+34 943 376 716

# Proiektua

## AKTA GARDENA

Manuala EUS

BEZEROAREN DATUAK:
IZFE
Miramon Pasealekua, 166,
20009 Donostia,
Gipuzkoa

**Data:**
**2018/07/02**

**KONFIDENTZIALTASUNA:**

Eskuliburu honetako informazio eta datuak IZFE / IAMETZArenak dira, eta “EZ ZABALKUNDERAKO AKORDIOA”ren barnean ulertuak daude.

IZFE / IAMETZAk idatzizko baimena eman ezean, lehiakideen aurrean IZFE / IAMETZAri kaltea eta desabantaila eragingo liokeen eta eskuliburu honetan agertzen den informazioaren zabalkundea debekatua dago.

# Aurkibidea

**1. Exekutagarriaren instalazioa**

1.1. WINDOWS-eko instalatzailea ........ 3

1.1.1. aktagardenainstaller.exe
1.1.2. Gstreamer
1.1.3. K-lite codecs
1.1.4. Instalazioa amaitu

1.2. LINUX instalazioa ........ 7
1.2. MacOS instalatzailea ........ 9

**2. Akta Gardena-rekin lanean hasi**

2.1. Hizkuntza aukeratu ........ 12
2.2. Grabazio mota ........ 13
2.3. Grabazio berria ........ 14

2.3.1. Konfigurazioa
2.3.2. Pantaila nagusia
2.3.3. Grabazio pantaila
2.3.4. Zuzenketa eta onarpen pantaila
2.3.5. Firmatzeko pantaila

2.4. Grabazioa ireki ........ 26

# 1. Exekutagarriaren instalazioa

## 1.1. WINDOWS-eko instalatzailea

### 1.1.1. aktagardenainstaller.exe




Instaladorea topatuko dugu eta klik bikoitza egingo dugu.

### 1.1.2.Gstreamer




Instaladoreak jarraitu beharreko pausoak gidatuko dizkigu eta aplikazioaren funtzionamendu egoki baterako beharrezkoak ditugun osagaiak instalatzen lagunduko digu.

**GStreamer** framework multimedia askea eta multiplataforma bat da. Ikus-entzunezkoen aplikazioak sortzea ahalbidetzen du hala nola, bideoa, audioa, kodifikazioa…

BAI aukeratu eta osagaiaren instalazioarekin jarraituko dugu.






Lizentzia onartu eta jarraitu.




Instalazio mota **Complete** aukeratu eta jarraitu.




“Install” aukeratu eta prozesuarekin jarraitzen dugu.







Gstreamer instalazioa amaituta, "Finish" aukeratuko dugu.

### 1.1.3.K-lite codecs

Jarraian, aplikazioak códec K-lite instalatzeko eskatuko digu (edo eguneratzeko dagoeneko PCan baldin badugu).

**K-Lite Codec Pack** DirectShow filtro bilduma bat da, VFW/ACM kodifikatzaileak, eta Microsoft Windows-eko bideo eta audioa formatuak kodifikatu eta deskodifikatzeko tresna.

### 1.1.4.Instalazioa amaitu

Beharrezkoak diren osagaiak instalatzea amaitzean, exekutatzaileak Akta Gardena instalatzea amaituko du.




"Close" aukeratu.

## 1.2. LINUX instalazioa

Bi fitxategi entregatuko dira:

- AktaGardena-x86_64.AppImage
- install_ubunt64.sh

AppImage fitxategiak funtzionatzeko behar dituen liburutegi eta dependentzia guztiak ditu, beraz ez du instalazio gehiago behar.

Fitxategiari gauzatzeko baimena eman behar diogu:

```
chmod +x AktaGardena-x86_64.AppImage
```

Terminala erabili gabe, artxiboen esploratzailetik egikaritzeko baimenak eman daitezke




Behin hau eginda, aplikazioa exekutatuko genuke klik bikoitza eginda:

```
./AktaGardena-x86_64.AppImage
```

Kasuren batean posible da dependentziaren batek huts egitea. Hori gertatuz gero, dependentziak esplizituki instalatu beharko ditugu:

```
sudo ./install_ubuntu64.sh
```

Amaitzeko, berriro exekutatuko dugu AppImage fitxategia.

# 1.3. MacOS instalatzailea

Akta Gardenaren ZIPa deskargatu eta mahaigainera atera. AktaGardena carpeta sortuko du eta bere barruan bi artxibo topatuko ditugu: install.sh eta AktaGardena.dmg.

Terminala irekiko dugu (Aplikazioak / Erabilerak):




Terminalean, lehenengo exekutatzeko baimena emango diogu script install.sh eta jarraian exekutatu egingo dugu:

```
AktaGardena — -bash — 152×51
Last login: Thu Jul 19 09:03:14 on ttys001
iMac-de-Maitane:~ [redacted]$ cd Desktop/AktaGardena
iMac-de-Maitane:AktaGardena [redacted]$ chmod +x install.sh
iMac-de-Maitane:AktaGardena [redacted]$ ./install.sh
```

MacOS-ek instalazioa konfirmatzeko eskatuko digu, jarraian “Instalatu” aukeratuko dugu.




Lizentzia kontratua onartuko dugu:




Instalazioa amaitzen duenean, terminalera itzuliko gara. Minutu batzuk iraungo du honek.




Terminalean INTRO sakatuko dugu. Instalatzen jarraituko dugu (minutu batzuk gehiago tardatuko du) eta amaitzen duenean, AktaGardena.dmg artxiboa irekiko dugu eta Aplikazioetara mugituko dugu.



# 2. Akta Gardena-rekin lanean hasi

## 2.1. HIZKUNTZA AUKERATU

Klik egingo dugu zabalgarrian eta nahi dugun hizkuntza aukeratuko dugu. Aplikazioa exekutatzen dugun bakoitzean hizkuntza aukeratzeko aukera eskainiko digu, beraz, ez da behin betikoa izango.




Behin hizkuntza aukeratuta, «Sartu» klikatuko dugu.

## 2.2. GRABAZIO MOTA

Sartzean aurkitzen dugun lehenengo pantailak bi aukera eskaintzen dizkigu: grabazio berria eta grabazioa ireki. Bakoitzaren aukerak ikusiko ditugu jarraian.



## 2.3. GRABAZIO BERRIA

“Grabazio berria” aukeran klik egin eta grabazioaren konfigurazioaren orri nagusira sartuko gara:




Grabazio berri batekin hasi aurretik, aplikazioaren hainbat parametro konfiguratzea komeni da:

### 2.3.1. Konfigurazioa

- **Parte hartzaileak:** menuko “Editatu” aukeran klik egin eta “parte hartzaile” aukera zabalduko dugu




Atal honetan, grabazioaren parte hartzaile bakoitzaren izena gehituko dugu. Izena idatziko dugu eta klik egingo dugu “Gehitu” aukeran. Beharrezkoak diren parte hartzaileak gehitzen jarraituko dugu eta amaitzeko leiho gainerakorra itxiko dugu.

Oharra: Denak ez baditugu gehitzen, aurrerago, edizio fasean, gehiago gehitzeko aukera izango dugu.




- **Gaiak:** Menuko "Editatu" aukeran klikatuko dugu berriro eta "Gaiak" aukera irekiko dugu.




Atal honetan, plenoan zehar landuko diren gaiak gehituko ditugu, gai ordena. Gaiaren izena idatzi eta "Gehitu" aukeran egingo dugu klik. Beharrezkoak ditugun gai guztiak gehitzen jarraituko dugu eta amaitzeko leiho gainerakorra itxiko dugu.

Oharra: guztiak ez baditugu gehitzen ere, aurrerago, edizio fasean, posible izango dugu gehiago gehitzea.



### 2.3.2. Pantaila nagusia

Orrialde nagusian grabazioaren konfigurazioarekin jarraituko dugu.




Izenburu (euskaraz eta gazteleraz) eta deskribapen bat gehituko diogu grabazioari, eta “Sesio mota” aukeratuko dugu



Beharrezkoak diren artxiboak atxikituko ditugu (pdf, doc, irudiak…):




Aurretik gehitu ditugun parte hartzaileak esleituko ditugu:




Aurretik gehitu ditugun gaiak esleituko ditugu:




Beheko eskuineko botoi berdea aukeratuko dugu eta grabazio pantailara jarraituko dugu.

## 2.3.3. Grabazio pantaila

Grabazio pantailan ikusiko dugu lehen esleitu ditugun gaiak eta parte hartzaileak agertu egiten direla, baita gehiago gehitzeko aukera ere (aurreko pantailan gertatzen den bezala).



“Grabazioa hasi” botoia aukeratuko dugu eta  dagokion gaian eta parte hartzailea aukeratzen joango gara (berdez markatuko dira) horrela sistemak interbentzioak identifikatuko ditu.




Beheko aldean, grabazioari atxikitutako oharrak gehitzeko txokoa dugu eta denborekin erregistratuko dira.




Behin sesioa amaituta, “Grabazioa amaitu” botoia aukeratuko dugu eta hurrengo pantailara joango gara.

### 2.3.4. Zuzenketa eta onarpen pantaila

Pantaila honetan, aplikazioak jaso duen akta ikus dezakegu:




Alde batetik, audioa daukagu eta berau entzun, eten eta gelditzeko aukera eskaintzen digu:




Bide batez, entzuten goazen heinean, ikusiko dugu berde kolorez jartzen joango direla lehenago aukeratu ditugun parte hartzaileak eta gaiak:




Nahiko bagenu, posible da interbentzioak (denborak) editatzea, berriak gehitzea edo ezabatzea. Parte hartzaileekin ere gauza bera gertatzen da.




Beheko aldean ikusiko dugu sistemak idazten joan garen oharrak jaso egin dituela, hauek aldatu, ezabatu edo gehitu egin daitezke.

Gorde egingo dugu eta firmatzeko pantailarantz jarraituko dugu.

## 2.3.5. Firmatzeko pantaila

Pantaila honetan aktari balio legala emango dion sinadura egingo dugu.




Akta sinatu aurretik, aplikazioak aukera ematen digu batzarrean hartu diren erabakien inguruko dokumentuak gehitzen joateko.




Bestelako artxiboak gehitzeko aukera ere ematen digu.




Behin dena prest dagoela, erabakien firma digitala (IZENPE bidez) egingo dugu. “Erabakiak sinatu” botoia aukeratuko dugu.




Aplikazioa sinadura prozesuarekin hasiko da:




Giltz@-ren lehenengo pantailan, Ziurtagiriak sinadura metodoa aukeratuko dugu:




Apliakzioak sinadura sistemarekin konektatuko du:




Eta dagokion sinadura ziurtagiria aukeratzeko eskatuko digu:




Behin sinadura amaituta, aplikaziora itzuliko gara. Akta sinatuko dugu eta, hau sinatuta dagoelarik, “Publikatu” botoia aktibatu egingo da.

## 2.4. GRABAZIOA IREKI

"Grabazioa ireki" aukeratzean, aplikazioak gorde ditugun akta guztiak erakutsiko dizkigu. Editatu nahi duguna aukeratu eta "zuzenketa eta onarpen" pantailara eramango gaitu (**2.3.4. Zuzenketa eta onarpen pantaila** atala ikusi).

